

BETERRI KOSTAKO INDUSTRIALDEA, S.A. (BEKISA)

Sozietatearen izena

Beterri Kostako Industrialdea, S.A.

IFK

A20316477

Izaera

Sozietate Publikoa.

Kontabilitate-araubidea

Pribatua.

Aurrekontu-araubidea

Partida murriztaileak dituen balioespena.

Sorrera

Sozietatea 1990eko martxoaren 21ean sortu zen eskritura publiko bidez, Centro de Empresas e Innovación de Guipúzcoa, S.A. / Gipuzkoako Eraberrikuntza eta Teknologia Industrialdea, S.A. (GETI, S.A.) izena zuela, honako honek baimendu ondoren: [248/1989 DEKRETUA, urriaren 31koa, Industria Sustaketa eta Berregokiketarako Baltzua, A.B. delakoari «Centro de Empresas e Innovación de Guipúzcoa, S.A. / Gipuzkoako Eraberrikuntza eta Teknologia Industrialdea, S.A.» izeneko Baltzu Publikoa sortzeko baimena ematen diona.](#)

1995eko ekainaren 21ean, izen hau hartu zuen: Zuatzu Parque Empresarial - Zuatzu Enpresa Parkea, S.A.

2012ko ekainaren 21ean, honako [95/2012 DEKRETUA, maiatzaren 29koa, Buruntzaldeko Industrialdea, S.A. eta Zarauzko Industrialdea, S.A. sozietate publikoak xurgapen bidez azkentzeko baimena emateko dena](#) honek baimendu ondoren, Zuatzu Parque Empresarial - Zuatzu Enpresa Parkea, S.A. sozietateak (sozietate xurgatzailea) eta Buruntzaldeko Industrialdea, S.A. eta Zarauzko Industrialdea, S.A. sozietateek (xurgatuak) xurgapen bidez bat egitea onartu zuten beren akziodunen batzar nagusietan, eta hau erabaki: xurgatutako sozietateak azkentzea, eta haien ondare sozial osoa sozietate xurgatzaileari eskualdatzea; azken horrek, beraz, xurgatutako sozietateen eskubideak eta betebeharrak bereganatu zituen oinordetza unibertsalaren bidez. Era berean, egungo izena hartzea erabaki zen: Beterri Kostako Industrialdea, S.A.

Sail-atxikipena

Ekonomiaren Garapena eta Lehiakortasuna.

JESN

4110 Higiezinaren sustapena.

Sozietatearen helburua

Sozietatearen xedea enpresa-jarduera berritzaileak prestatu eta garatzeko beharrezkoak diren zerbitzuak ematea da; besteak beste:

- Enpresa-proiektu berrien sustatzaileak bilatu eta hautatzea.
- Sustatzaileak prestatzea.
- Berrikuntzaren eta teknologiaren alorreko laguntza ematea.
- Enpresaren eta kudeaketaren plangintza prestatzen laguntzea.

- Proiektuak egiteko beharrezko finantzaketa lortzen laguntzea.
- Enpresa berrientzako lokalak bilatzen laguntzea.
- Lokal komertzialak eraikitzea, alokatzea eta saltzea.
- Industria-ekimena eta -inbertsioa sustatzea bere eraginpeko eremuan (hau da, Donostialdean eta Urola Kostan: Donostia, Astigarraga, Hernani, Urnieta, Andoain, Lasarte-Oria, Usurbil, Orío, Aia, Zarautz eta Zumaia), bere jabetzako lurretan jarduera ekonomikoak garatzeko guneak eraikiz, eta haiek kudeatuz.
- Eta enpresa-ekimen berritzaile berriak sustatzera bideraturiko beste edozein jarduera, bere eraginpeko eremuaren garapen ekonomikoan laguntzeko xedez.

Sailkapena kontabilitate nazionalen


EAEk kontrolatutako sozietate ez-finantzario publikoak.

Kapital soziala

21.379.794 €

Kapital sozialaren osaera

Sprilur, S.A.	% 51,00
Gipuzkoako Foru Aldundia	% 24,50
Donostiako Udala	% 15,65
Hernaniko Udala	% 5,29
Zarauzko Udala	% 3,56



Administrazio Kontseilua

Administrazio Kontseilua da sozietatea ongien kudeatzea eta ordezkatzea dagokion sozietateko kide anitzeko organoa. Honako hauek dira 2012ko ekitaldiko urteko kontuak egin dituzten Administrazio Kontseiluko kideak:

Juan Carlos Asín Bustamante jauna	presidentea.
Jon Uriguen Ansola jauna	presidenteordea.
Mikel Oregi Goñi jauna	idazkaria.
Sebastián Idarreta Lapazaran jauna	idazkariordea.
José Miguel Artaza Artabe jauna	
Oscar Alberdi Sola jauna	
Javier Pérez López jauna	
Iñaki Villanueva Muñoz jauna	
Estefanía Morcillo Cerdán andrea	
Oscar Usetxi Blanco jauna	
Joseba Mirena Amondarain Senperena jauna	
Juan Luis Illaramendi Roteta jauna	
Luis Intxauspe Arozamena jauna	

EAEko Sektore Publikoaren proposamenez izendatuta: % 53,85

2012ko aurrekontuak

www.euskadi.net

2012ko urteko kontuak, kudeaketa-txostena eta aurrekontuen likidazioa

[Ikuskaritza-txostena, 2012ko ekitaldiko urteko kontuak eta kudeaketa-txostena, Kapital- eta ustiapen-aurrekontuen likidazioa, eta Programatutako helburuen betetze-mailari buruzko memoria.](#)

2012ko ekitaldiko ekonomia- eta finantza-magnitude nagusiak

Aktiboa guztira	29.915.730 €
Ondare garbia	27.235.390 €
Negozio-kopuruen zenbateko garbia	2.544.632 €
Batez besteko langile-kopurua	7

Sozietatearen helbidea

Juan Fermin Gilisagasti, 1 - Zurriola eraik., 2.a, 4. lokala 20018 DONOSTIA (Gipuzkoa).

Webgunea

www.sprilur.es